

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ahaldun Nagusia**

Ahaldun Nagusiaren 101/2019 FORU DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen.

Ahaldun Nagusiari dagokio, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 37. artikulua arabera, foru diputatuak izendatzea; beraz, Ahaldun Nagusiak zehaztu egin ditzake Foru Aldundiaren egitura orokorra eta haren jardun-eremuak.

Nolanahi ere, Foru Aldundiak, gero, bestela erabaki dezake, sailtako egitura organikoak zehazterakoan, foru arau bereko 17.1.14 artikuluan ematen zaizkion eskumenak erabiliz.

Foru-dekretu honen xedea da Foru Aldundiak egun duen egiturari funtsean eustea. Dena dela, jarraian zehaztuko diren aldaketak egingo dira, aldaketa horiek baitira egungo egoera sozial eta ekonomikoa ikusita egokientzat jotzen direnak.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua

Bizkaiko Foru Aldundiak sail eta zuzendaritza nagusi hauek izango ditu:

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

- a) Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia.
- b) Udal Harremanen eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusia.
- c) Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia.
- d) Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusia.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikiko zaizkio Lantik, S.A., Bitarteko Propioa eta Zugastel, S.A., Bitarteko Propioa merkataritzako foru-sozietateak eta Biscaytik Fundazioa.

2. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

- a) Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia.
- b) Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.

Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikiko zaizkio Basalan, S.A., Bitarteko Propioa eta Garbiker, S.A., Bitarteko Propioa merkataritzako foru-sozietateak.

3. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

- a) Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- c) Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza Nagusia.
- d) Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

4. Ogasun eta Finantza Saila

- a) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Katastroaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia.
- c) Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.
- d) FAEaren Zuzendaritza Nagusia.



Ogasun eta Finantza Sailari atxikiko zaio LAE foru-erakunde publiko enpresariala (Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Erakundea).

5. *Euskara Kultura eta Kirola Saila*

- a) Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- b) Euskara Zuzendaritza Nagusia.

Kultura, Euskera eta Kirola Sailari atxikiko zaizkio Euskalduna Jauregia, S.A., Bitarteko Propioa merkataritzako foru-sozietatea, BizkaiKOA foru-erakunde publiko enpresariala, Bizkaia-Bizkaialde Fundazioa, Azkue Fundazioa eta Juan Crisóstomo de Arriaga Orkestra Sinfonikoa.

6. *Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila*

- a) Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari atxikiko zaizkio Azpiegiturek, S.A., Bitarteko Propioa eta Interbiak, S.A., Bitarteko Propioa merkataritzako foru-sozietateak.

7. *Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila*

- a) Garraioen Zuzendaritza Nagusia.
- b) Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Garraioak eta Mugikortasuna Jasangarria Sustatzeko Sailari atxikiko zaio Aparkabisa, S.A., merkataritzako foru-sozietatea.

8. *Ekonomia Sustatzeko Saila*

- a) Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusia.

Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikiko zaizkio BEAZ, S.A., Bitarteko Propioa, Seed Capital Bizkaia, S.A., Seed Capital Bizkaia Mikro, S.A., Crowdfunding Bizkaia PFP, S.L., eta Sestao Bai, S.A.

9. *Gizarte Ekintza Saila*

- a) Administrazioarako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Gizarte Ekintza Sailari atxikiko zaizkio Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomoa (IFAS-GUFE) eta Bizkaiko Tutoretza Erakundea foru-erakunde publiko enpresariala.

Bigarren artikulua

Ahaldun Nagusiaren Kabinetea mantentzen da, zeina zuzenean Ahaldun Nagusiaren menpe egongo baita. Haren eginkizunak erregelamenduz garatuko dira; Ahaldun Nagusiaren Kabineteko burua titularra izango da, eta jardun-eremu nagusi hauek koordinatuko ditu:

- a) Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Kanpo Ekintzako Zuzendaritza Nagusia.
- c) Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia.

Hirugarren artikulua

Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea sortzen da, zeina zuzenean Ahaldun Nagusiaren menpe egongo baita. Haren eginkizunak erregelamenduz garatuko dira; Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko burua titularra izango da, eta jardun-eremu nagusi hauek koordinatuko ditu:

- a) Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritza Nagusia.

**Laugarren artikulua**

Foru-dekretu hau Foru Aldundiak berretsi behar du.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Sailen eta Ahdun Nagusiaren Kabinetearen egitura organikoa zehazteko foru-dekretuak onetsi artean, egungo zuzendaritza, zuzendariordetza, zerbitzu eta atalen egin-kizunak mantenduko dira, bien bitartean egiten diren izendapenak gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratuko dira foru-dekretu honen aurka dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko uztailaren 1ean.

Ahdun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ